



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Euskara eta boto abertzalearen
inguruko azterketa ekologikoa:
2016ko Eusko Legebiltzarreko
hauteskundeak**

*Haritz Garmendia eta
Eguzki Urteaga*

102-109 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.12>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



Euskara eta boto abertzalearen inguruko azterketa ekologikoa: 2016ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak

Garmendia Haritz, Urteaga Eguzki,
Euskal Herriko Unibertsitatea
hgarmendia003@ehu.ikasle.eus

Laburpena

Ikerketa honen helburua, 2016ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan euskara eta boto abertzalearen artean dagoen lotura aztertzea da. Horretarako, analisi ekologikoa hobesten da eta datu agregatuak erabiliz, udalerri bateko euskara ezagutza, transmisioa eta erabileraren eta hautagai abertzaleek jasotako botoen arteko erlazioa kuantifikatzen da. Ondorio moduan, 2016ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan udalerri bateko euskara ezagutza, transmisioa eta erabileraren ehunekoa igo ahala alderdi abertzaleei bozkatzeko joera ere handitu egiten dela frogatu da.

Hitz gakoak: euskara - boto abertzalea - korrelazioa

Abstract

The aim of this research is to analyze the relationship between the Basque language and the nationalist vote, in the 2016 elections to the Basque Parliament. To quantify the relationship between the knowledge, transmission and use of the Basque language and the support received by nationalist parties in a village, I have prioritized its ecological analysis and used aggregate data. Thus far, it has been proven that as the percentage of Basque language's knowledge, transmission and use goes up, the tendency to vote for Basque nationalist parties also increases.

Key words: Basque language – nationalist vote – correlation

1. Sarrera eta motibazioa

Ikerketa honetan euskara eta boto abertzalearen arteko harremanaren inguruko azterketa ekologikoa burutzen da. Modu horretara, EAEko hautesleen portaera elektorala hobeto ezagutuz gai honen inguruan aurrez dagoen ezagutza osatu nahi da.

Hautesleen portaera elektorala aztertzen duten ikerketek interes akademiko handia dute. Interes horren erakusgarri da, ikerketa horiek mundu mailako aldizkari prestigiotsuenetan duten presentzia esanguratsua (Healy eta Lenz, 2014; Hersh eta Nall, 2016). Dena dela, eskuartean dugun ikerketa honek badu bestelako motibazio bat.

XXI. mendearen bigarren hamarkada honetan, aldaketa soziopolitiko eta ekonomiko handiak eman dira Euskal Herrian. Aldaketa horiek, urte luzez hegemonikoak izan diren zenbait mundu ikuspegi kolokan jarri dituzte. Auzitan jarri den logika bat, mugimendu linguistikoaren eta mugimendu abertzalearen arteko harreman estua da. Eztabaida honen inguruan, luze eta zabal hitz egin da azken aldian eta hainbat galdera mahai gaineratu dira: nor da euskalduna? Zer da herria eta zer gizartea? Ze nolako euskalduntasuna eraiki behar dugu euskararen biziraupena eta normalizazioa ziurtatzeko?

Autore batzuek, euskal komunitate linguistikoak bere formulazio politikoa behar duela aldarrikatzen dute (Odriozola, 2015). Beste batzuek, berriz, politikoki potentzialtasun baxua ikusten diote formulazio

horri, eta ikuspegi estrategiko batetik, indar korrelazio ezberdinak sortuko diren marko berri bat eraiki beharra aldarrikatzen dute, horretarako, erdal munduari erakargarriago egingo zaion euskaltasun bat formulatuz (Apaolaza, 2015; Goikoetxea, 2015). Euskaltasun berri horren aurrean, Iztuetaren (2016) proposamenarekin bat egiten duten autoreek, arestiko galderak herri subordinatu bezala irakurri beharra azpimarratzen dute eta *euskal* eta *vasco* kontzeptuak berdintzeak dakartzan arriskuez ohartarazten gaituzte. Ikusten den bezala, eztabaida oso oparoa da. Gure kasuan, eztabaida hori aberasteko euskarak alderdi abertzaleen emaitza elektoralarekin duen harremana kuantifikatu nahi da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1 Arloko egoera

Hautesleen portaera elektorala aztertzeaz arduratzen diren lehen ikerketak XX. mendearen hasieran sortu ziren, eta ordutik, garapen metodologiko eta teoriko handia eduki dute. Sonnleitnerrek (2013) dion moduan, portaera elektorala aztertzeko bi hurbilpen nagusi daude. Aurreneko hurbilpena, perspektiba indibidualista bezala ulertzen dena da, eta kasu horretan, analisi unitatea norbanakoa da. Bigarren hurbilpena, berriz, perspektiba agregatua da eta norbanakoaren ordezkari lurrean hartzen da analisi unitate moduan (Le Bras, 2002).

Bigarren hurbilpen honi dagokionez, bi elementu azpimarratu behar dira: analisi unitatea eta lurralde-dinamiken logikan aztertuko diren aldagaiak. Analisi unitate moduan udalerria, eskualdea edota probintzia hartu daiteke. Aldagaien kasuan, berriz, talde baten emaitza elektoralak eta eremu geografiko horretako aldagai estrukturalak erabiltzen dira (Trujillo & Ortega, 2015). Gure ikerketaren kasuan, analisi unitate bezala udalerria hartuko da eta hautesleen portaera elektorala aztertzeko kontutuan izango ditugun aldagaiak udalerrietako alderdi abertzaleen emaitzak eta herritarren datu soziolinguistikoak dira.

Edonola ere, azterketa hori burutu nahi bada, ikergaia bere kontestuan ulertzea komeni da. Alde horretatik, Euskal kasua, Europa mendebaldeko Estatu gabeko nazioen testuinguruan kokatu behar da. Nazioartean egin diren hainbat ikerketek, talde etnolinguistikoak indartsuak diren eremuetan alderdi nazionalista periferikoek lortzen dituzten boto ehunekoak beste eremuetan baino handiagoak direla erakutsi dute. Espainiar Estatuan ere, Kataluniako edota Galiziako lurraldean egin diren zenbait ikerketek antzeko tesia defendatzen dute (Medeiros et. al., 2015; Puig eta Ginebra, 2015; Pérez Nieves eta Bonet, 2006).

Gurera etorrita, euskara eta boto abertzalearen arteko lotura sendoa dela ondorioztatu dute hainbat autorek (Llera, 2016). Dena dela, ikerketa horietako gehienak, perspektiba indibidualistatik burutu dira eta analisi ekologikoa erabiliko dutenak gutxiengoa dira (Albero, 2005; Garmendia, 2015). Gure ikerketaren bidez, perspektiba agregatua erabiliz 2016ko Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetan¹, bi aldagaien arteko erlazio-lineala zenbatekoa den aztertu nahi da.

2.2 Ikerketaren helburuak

Gure ikerketaren helburu nagusia, analisi unitate moduan udalerria erabiliz, euskara eta boto abertzalearen arteko lotura kuantifikatzea da. Alde horretatik, ikerketak honako helburu espezifikoak ditu:

1. HELBURUA: Udalerri bateko herritarren euskara ezagutzaren, erabileraren eta transmisioaren eta boto abertzalearen artean erlazio-lineala sendoa dagoela berrestea da.
2. HELBURUA: Udalerri bateko herritarren euskara ezagutzaren, erabileraren eta transmisioaren eta zentro-eskuineko alderdi abertzaleak (EAJ) jasotako babes elektoralaren artean dagoen erlazio-lineala kuantifikatzea.

¹ Euskara eta boto abertzalearen arteko lotura aztertzeko orduan, EAEko hauteskundeak hautatu ditugu. Azken batean, euskal abertzaletasunaren babes elektorala ulertzeko hauteskunde egokienak Eusko Jaurlaritzako hauteskundeak baitira. Gaian sakontzeko ikusi honako lan hau: Llera (2016).

3. HELBURUA: Udalerrri bateko herritarren euskara ezagutzaren, erabileraren eta transmisioaren eta zentro-ezkerreko alderdi abertzaleek (EH Bildu, Libertate Nafarra) jasotako babes elektoralaren artean dagoen erlazio-lineala kuantifikatzea.


3. Ikerketaren muina

Aurreko ataletan esan dugun bezala, ikerketa honek funtzio deskriptibo eta korrelatiboa du, eta helburu nagusia, euskara eta boto abertzalearen arteko erlazioa kuantifikatzea da. Horretarako, lehenbizi, hautesle kopurua udalerrri bakoitzeko nola kontzentratua dagoen ikusiko da. Ondoren, udalerrietako hauteskundeetako emaitzak eta datu soziolinguistikoak deskribatuko ditugu. Bi horiek deskribatu ostean, bi aldagaien arteko erlazioa kuantifikatzeko irizpideak zehaztu eta prozedura horri jarraituz analisia burutuko da.

3.1 EAEko udalerrriak hautesle erroldaren ikuspegitik

2016ko datuei erreparatzen badiogu, Eusko Autonomia Erkidegoan 251 udalerrri daude (Gipuzkoan, 88; Bizkaian, 112; Araban, 51). Bizkaiko kasuan, udalerrri nagusiak Bilbo inguruetan kokatzen dira. Aldiz, biztanle gutxiena duten udalerrriak Bizkaiko mendebaldean daude. Gipuzkoako kasuan, hautesle gehienak Donostia inguruan bizi diren arren, populazioaren banaketa homogeneoagoa da. Muturreko adibidea, Araba da. Izan ere, hautesle-erroldaren %75a Gasteizen pilatzen da eta beste udalerriek egiten duten ekarpen elektoralak proportzionalki oso txikia da.

1. irudia. Udalerrri bakoitzeko hautesle-errolda



Iturria: Eusko Jaurlaritza (guk moldatua)

3.2 Hauteskundeetako emaitzak

Hauteskundeetako emaitzak deskribatzerakoan,² 2016ko Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetan alderdi abertzaleek³ udalerrri mailan lortzen dituzten emaitzetan zentratuko gara. Alde horretatik, EAEko udalerrri gehienetan (%82an) alderdi abertzaleek botoen %60a baino gehiago jaso dutela ikusten da. EAEko 110 udalerritan (udalerrien ia %44a), esaterako, hautagaiek jasotako botoen %80a baino gehiago abertzalea da. Dena dela, udalerrri horien batez besteko hautesle-errolda oso txikia da (1355 herritar) eta

² <http://www.euskadi.eus/elecciones/>

³ Orotara 16 alderdi aurkeztu dira Eusko Jaurlaritzarako 2016ko hauteskundeetara. Gure kasuan, alderdi abertzale moduan hartuko ditugun alderdiak, honako hauek dira: EAJ, EH Bildu eta Libertate Nafarra. EAJren kasuan, zentro-eskuineko alderdi bezala hartu dugu eta EH Bildu eta Libertate Nafarra zentro-ezkerreko alderdi moduan multzokatu ditugu.

udalerri horietan kontzentratzen den populazioa EAEko hautesle-errolaren %9ra ez da iristen. Udalerrri handienetan, alderdi abertzaleek, hautagaiek jasotako botoen %40 eta %60 bitartean jaso dute.


1. taula. EAEko udalerriak, boto abertzalea %tan eta hautesle-errola

Botoen %koa	Udal kopurua	%tan	Hautesle-errola Minimoa	Hautesle-errola Maximoa	Hautesle-errola Totala	Hautesle-errola %tan	Batez besteko errola	Desb. Tip
80-100	110	%43,82	89	13.259	149.065	%8,70	1.355	2.358,07
60-80	95	%37,85	112	24.026	433.066	%25,26	4.559	5.046,85
40-60	42	%16,73	149	273.513	1.115.972	%65,10	26.571	53.847,35
20-40	4	%1,59	799	12.831	16.157	%0,94	4.039	5.137,55
0-20	0	%0,00	-	-	-	-	-	-
TOT	251	%100,00	89	273.513	1.714.260	%100,00	6.830	24.043,72

Iturria: Eusko Jaurlaritza (guk moldatua)

Alabaina, alderdi abertzaleak, bi sail nagusitan banatzen dira: zentro-eskuineko alderdi abertzaleak (EAJ) eta zentro-ezkerreko alderdi abertzaleak (EH Bildu eta babes elektoral apalagoa lortzen duen LN). Hainbat lanek erakusten duten bezala (Llera, 2016), zentro-eskuineko alderdiek babes elektoral handiagoa edukitzeaz gain, babes hori, lurraldearen ikuspuntutik, modu homogeneoan banatuta dago. Ahulgune nagusiak, Gipuzkoako ekialdea eta Arabako hegoaldea dira eta indar gune nagusia, berriz, Bizkaiako mendebaldea da. Zentro-ezkerreko alderdien kasuan, babes elektoral apalagoa jaso dute eta lurraldearen ikuspuntutik, boto kontzentrazio altuenak Gipuzkoan eta Bizkaiko Ekialdean pilatzen dira.

2. irudia. EAEko udalerrietan alderdi abertzaleek jasotako babes elektoralaren batura %tan



Iturria: Eusko Jaurlaritza (guk moldatua)


3.3 Datu Soziolinguistikoak

Datu soziolinguistikoak azterketa burutzeko, erakunde publikoek burutzen duten *Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsua*⁴ inkestan lortutako datuetan oinarritu gara. Datu horiek, gisa honetako azterketak burutzekoan gehien erabiltzen diren datuak dira (Eusko Jaurlaritza, 2009). Orotara, hiru aldagaien inguruko datuak biltzen dira: udalerri bateko euskara gaitasuna, euskara transmisioa eta etxeko euskararen erabilera. Gure kasuan, lan honetan 2011ko datuak erabili ditugu.

⁴ http://www.eustat.eus/estadisticas/opt_0/id_5/ti_Euskera_Cultura_y_Juventud/subArbol.html. Nafarroako kasuan, udalerri mailako azken datu soziolinguistikoak 2001koak direnez, ikerketatik kanpo uztea erabaki dugu.

Azpiko irudiari erreparatzen badiogu, EAEko udalerriek egoera soziolinguistiko heterogeneoa dutela ikusten da. EAEko iparraldeko udalerrietan, euskara ezagutza handia da, bereziki, Gipuzkoa erdialdean eta Bizkaia ekialdeko udalerrietan. Arabako eta Bizkaia mendebaldeko udalerrietan, berriz, euskara ezagutza apalagoa da. Euskara transmisioa eta etxean erabiltzen den hizkuntzaren kasuetan ere, antzeko datuak mantentzen dira (Eusko Jaurlaritza, 2009). Oro har, euskal komunitatea ipar aldean kontzentratua dagoela ikusten da, eta hegoaldean, euskara ezagutu, euskara transmititu eta euskaraz bizi den herritarren ehunekoa oso txikia da.

3. irudia. EAEko udalerrietako herritarren euskara ezagutza, transmisioa eta etxeko erabilera %tan.



Iturria: Eustat (guk moldatua)

Jarraian, EAEko udalerrietako datu soziolinguistiko eta elektoralak deskribatu ostean, bi aldagaien arteko lotura aztertzea igaroko gara.

3.4 Korrelazio koefizientea: teoria eta prozedura metodologikoa

Azterketa elektoralak modu ezberdinetara planteatu daitezke. Aukeretako bat, hurbilpen ekologikoa burutzea da. Azken honen kasuan, ikerketaren helburuaren arabera teknika estatistiko ezberdinak erabiltzen dira. Gure kasuan, botoaren lurralde-dinamikak prozesu soziopolitiko batekin erlazionatu nahi ditugunez, korrelazio koefizientea erabiliko dugu (Sonnleitner, 2013).

Korrelazio-koefizienteak, aldagaien arteko erlazio-linealaren berri ematen digu. Beste modu batera esanda, aldagai bat handitu ahala besteak ere handitzeko joera ote duen aurreikusteko balio du. Analisia burutzerakoan, hiru aldagai hartu behar dira kontuan: sendotasuna, zeinua eta esangura (Etxeberria, 2011).


- Sendotasuna: Balio absolututan irakurri behar da. Koefizienteak 0tik 1rako balioak hartu ditzake eta 1etik zenbat eta gertuago orduan eta sendoagoa da bi aldagaien arteko erlazio-lineala.
- Zeinua: positiboa edo negatiboa izan daiteke. Aldagai askea igo ahala menpeko aldagaiak ere goranzko joera badu positiboa izango da eta alderantziz.
- Esangura (p): bi aldagaien arteko lotura 0 izateko probabilitatea. Balio hori, 0,05 baino txikiagoa bada, hipotesi nulua baztertzeko da. Hots, bi aldagaien artean erlazioa dagoela onartzen da.

Behin oinarri teorikoa azalduta, jarraian, korrelazio koefizientea eskuratzeko jarraitu dugun prozedura zehaztuko dugu. Alde horretatik, datu bilketa aurrez aipatutako datu iturri ofizialetatik egin da eta SPSS da analisia burutzeko erabili dugun programa informatikoa. Proba estatistikoak aplikatu

aurretik, datuek aurretiko batzuk betetzen dituzten aztertu dugu eta menpeko aldagaia modu normalean banatzen ez denez, teknika ez-parametrikok erabili dira. Gure kasuan, Spermanen korrelazio-koefizientea erabili da. Jarraian, esandakoa praktikan jarritz, datuak nola interpretatu ditugun ulertzeko adibide bat proposatzen da.

Grafikoan ikusten den bezala, udalerri bateko euskara ezagutzaren eta boto abertzalearen arteko lotura oso estua da. Kasu honetan, goiko irudietan begi bistara pertzibitu daitekeena datu kuantitatibo bidez berretsi dugu. Alde horretatik, 2016ko hauteskundeetan udalerri bateko euskara ezagutza eta boto abertzalearen arteko korrelazioa $r_{\text{sperman}}=0.865$ koa da. Beraz, bi aldagaien arteko erlazio-lineala positiboa izateaz gain harremana oso sendoa dutela ikusten da. Ondorengo atalean, prozedura hau erabiliz, gainerako koefizienteak kalkulatu ditugu.

4. irudia. EAEko udalerriak euskara ezagutza eta boto abertzalearen arabera.



Iturria: Guk egin

3.4 Emaitzak

Jarraian emaitzak aurkeztuko ditugu. Alde horretatik, azalpena ulergarriagoa izateko emaitzak hiru tauletan banatu ditugu: euskara eta boto abertzalearen arteko erlazio-lineala, euskara eta zentro-eskuineko botoaren artekoa, eta hirugarrena, euskara eta zentro-ezkerreko botoaren artekoa.

Euskara eta boto abertzaleari dagokionez, bi aldagaien arteko lotura oso sendoa dela ikusten da, bereziki, Gipuzkoan (+0.927 eta +0.917). Gainera aldagai soziolinguistiko batetik bestera korrelazio-koefizientea ez da askorik aldatzen. Lurraldeei dagokionez, euskara eta boto abertzalearen arteko lotura ahulena Araban gertatzen da (+0.526 eta +0.573).

2. taula. Korrelazio-koefizientea, euskara eta boto abertzalearen artekoa

	GAITASUNA	TRANSMISIOA	ERABILERA
EAE	0.865**	0.861**	0.866**
Bizkaia	0.889**	0.899**	0.894**
Gipuzkoa	0.923**	0.917**	0.927**
Alava	0.564**	0.526**	0.573**

$p < 0.01^{**}$, $p < 0.05^{*}$.

Euskara eta zentro-eskuineko boto abertzaleari dagokionez, oro har, bi aldagaien arteko lotura oso ahula eta ez esanguratsua dela ikusten da. Arabako kasuan esaterako, euskaren transmisioaren eta zentro-eskuineko boto abertzalearen arteko erlazio-lineala negatiboa da (+0.001, -0.097 eta -0.023). EAE, Bizkaia eta Gipuzkoan, berriz, bi aldagaien arteko lotura hutsala da.

3. taula. Korrelazio-koefizientea, euskara eta zentro-eskuineko boto abertzalearen artekoa

	GAITASUNA	TRANSMISIOA	ERABILERA
EAE	0.016	0.001	0.006
Bizkaia	0.131	0.137	0.126
Gipuzkoa	0.136	0.129	0.140
Alava	0.001	-0.097	-0.023

$p < 0.01^{**}$, $p < 0.05^{*}$.

Bestelakoa da, euskara eta zentro-ezkerreko boto abertzalearen arteko erlazioa. Kasu honetan, bi aldagaien arteko erlazioa sendoa dela ikusten da (≈ 0.7 eta 0.9 artean). Lurraldeei dagokionez, bi aldagaien arteko erlazio sendoena Bizkaian suertatzen da eta erlazio ahulena Gipuzkoa ($+0.765$, $+0.768$ eta $+0.766$) eta Araban ($+0.712$, $+0.728$ eta $+0.806$).

4. taula. Korrelazio-koefizientea, euskara eta zentro-ezkerreko boto abertzalearen artekoa

	GAITASUNA	TRANSMISIOA	ERABILERA
EAE	0.854 ^{**}	0.857 ^{**}	0.865 ^{**}
Bizkaia	0.857 ^{**}	0.865 ^{**}	0.865 ^{**}
Gipuzkoa	0.765 ^{**}	0.768 ^{**}	0.766 ^{**}
Alava	0.712 ^{**}	0.728 ^{**}	0.806 ^{**}

$p < 0.01^{**}$, $p < 0.05^{*}$.

4. Ondorioak

Lan honen helburua, udalerri bateko euskara ezagutza, transmisioa eta erabileraren eta alderdi abertzaleek jasotako botoen ehunekoaren arteko korrelazioa aztertzea da. Alde horretatik, erreferentzia markotzat lurralde ezberdinak hartuz (EAE, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), udalerri bateko euskararen ezagutza, transmisioa eta etxeko erabileraren ehunekoa igo ahala alderdi abertzaleek jasotako botoen ehunekoa igotzeko joera dagoela demostratu da. Erlazio-lineal sendoa dagoenez, lurgune euskaldunetako udalerrietan alderdi abertzaleek botoen ia ehuneko ehuna lortzen dute. Lurgune ez hain euskaldunetan, berriz, errealitatea konplexuagoa da eta euskarak duen gaitasun esplikatiboa lausoagoa da.

Hori dela eta, ikerketaren azpiatal bezala, erlazio hori hobeto ulertzeko asmoz, ezker/eskuin dimentsioa gehitu dugu. Ildo horretatik, euskararen ezagutza, transmisioa eta etxeko erabileraren ehunekoa igo ahala zentro-ezkerreko alderdi abertzaleek jasotako botoen ehunekoa igo egiten dela ikusten da. Beste modu batera esanda, udalerri euskaldunetan babes elektoral sendoa lortu arren (Azpeitia), lurgune ez hain euskaldunetan kokatzen diren udalerri handietan zentro-ezkerreko alderdi abertzaleek emaitza apalak lortzen dituztela frogatu da (Barakaldo). Bestalde, zentro-eskuineko alderdi abertzalearen kasuan, bi aldagaien arteko erlazio-lineala nulua da. Izan ere, lurgune euskaldun eta ez euskaldunetan zentro-eskuineko alderdi abertzaleak, antzeko datuak elektoralak lortzen ditu (Bilbo eta Aian adibidez).

Paradoxa honek, honako ondorio honetara garamatza: euskara eta boto abertzalearen arteko lotura ulertu nahi bada, ezinbestean, bi plano bereizi behar dira. Bi plano horiek, *euskal komunitate linguistikoa* eta *euskal gizartea* dira. Alde horretatik, *euskal komunitate linguistikoa* hegemonikoa den udalerrietan, *gizarteak* abertzale bozkatzeko joera daukala frogatu da, eta portaera elektoralak determinatzerakoan, ezker/eskuin ardatza bigarren mailako aldagaia da. Euskal komunitateak *gizartean* hegemoniko izateari uzten dion momentuan, ordea, euskara eta boto abertzalearen arteko erlazio lineala ere lausotu egiten da eta errealitate anitz sortzen dira. Errealitate anitz horiek ulertzeko, burutu berri dugun ikerketa, datu indibidualetan oinarritutako lekuan lekuko azterketekin osatzea ezinbestekoa da.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerketa honek, 2016ko Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetako hautesleen portaera elektorala deskribatzeko balio izan digun arren, interesgarria litzateke, bi aldagaien arteko erlazio-lineala azaltzen duten mekanismoak ulertzea. Gauzak horrela, ikerketa honetatik, ikerlerro interesgarri bat zabaltzen dela iruditzen zaigu. Besteak beste honako galderak proposatzen dira; erlazio-lineal hori kasualitatez edo kausa-ondorio batengatik ematen da? Zen da hauteslearen aldagai sozio estruktural ezberdinek euskara eta bozka abertzalearen arteko loturan duten eragina?

Etorkizunera begira, ikerlerro berriari helduko zaio. Hala, euskara eta boto abertzalearen arteko loturaren mekanismoak ulertu nahi dira. Mekanismo horiek ulertzeko, subjektuek fenomeno horri ematen dioten zentzuan sakonduko da. Datu agregatuetatik portaera indibidualak aztertzea ezinezkoa denez (Robinson, 1950), ikerketarekin jarraitzeko abertzale bozkatzaren duten euskaldunek lotura horri ematen dioten zentzua ulertu nahi da. Era berean hautesle baten ideologia, sorterrria, bizitokia, hezkuntza maila edota adinak lotura horretan izan dezaken eragina aztertu nahi da.

6. Erreferentziak

- Albero, J. (2005): Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko harremana Nafarroan, *Jakin*, 149, 11-25.
- Apaolaza, U. (2015): Nazio hizkuntza izateari utzi estatu hizkuntza izan ahal izateko, *Jakin*, 208, 51-65.
- Etcheberria, J. (2011): *Estatistika aplikatua: teoria eta praktika*, Elhuyar, Usurbil.
- Eusko Jaurlaritza. (2009). IV. *Mapa Soziolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Galfarsoro, I. (2015): Estatu gabeko naziotik naziorik gabeko Estatura, (arg.), *Independentsia Helburu*, Txalaparta, Tafalla, 259-336.
- Garmendia, H. (2015), Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura, *Jakin*, 208, 25-40.
- Goikoetxea, J. (2015): Euskal Estatugintza Feminista. *Independentsia Helburu*, Txalaparta, Tafalla, 185-258.
- Healy, A. eta Lenz, G. (2014), Substituting the End for the Whole: Why Voters Respond Primarily to the Election-Year Economy, *American Journal of Political Science*, 58(1), 31-47
- Hersh, E., eta Nall, C. (2016), The Primacy of Race in the Geography of Income-Based Voting: New Evidence from Public Voting Records, *American Journal of Political Science*, 60(2), 289-303.
- Iztueta, I. (2016), Kultura autodeterminatuko balitz, *Jakin*, 216, 11-29.
- Le Bras, H. (2002): *Une autre France: votes, réseaux de relations et classes sociales*, Odile Jacob, Paris.
- Llera, F. J. (2016): *Las elecciones autonómicas en el País Vasco*, Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid.
- Medeiros, M., et. al., (2015), Refining vote choice in an ethno-regionalist context: Three-dimensional ideological voting in Catalonia and Quebec. *Electoral Studies*, 40, 14-22.
- Odriozola, J. M. (2015). Formulazio politikoaren bila. *Jakin*, 208, 65-77.
- Pérez Nievas, S., eta Bonet, E. (2006), Identidades regionales y reivindicación de autogobierno. El etnorregionalismo en el voto a partidos nacionalistas de Bélgica, España y Reino Unido, *Revista Española de Ciencia Política*, 15, 123-161.
- Puig, X., eta Ginebra, J. (2015), Ecological Inference and Spatial Variation of Individual Behavior: National Divide and Elections in Catalonia, *Geographical Analysis*, 47, 262-283.
- Robinson, W. S. (1950), Ecological correlations and the behavior of individuals, *American Sociological Review*, 15(3), 351-357.
- Sonnleitner, W. (2013), Explorando las dimensiones territoriales del comportamiento político: reflexiones teórico-metodológicas sobre la geografía electoral, la cartografía exploratoria y los enfoques espaciales del voto, *Estudios Sociológicos*, 31, 97-142.
- Trujillo, J. M., & Ortega, C. (2015), Un estudio ecológico del voto socialista en el medio rural-urbano andaluz, 1999-2012, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 152, 143-166.

7. Eskerrak eta oharrak

Aurkeztu berri dugun ikerketa hau, EHUKo “Gizartea, Politika eta Kultura” doktore programa barruan burutzen ari garen *Euskara eta boto abertzalearen arteko lotura* doktore tesiaren egokitzapen bat da.